

## AMARA BERRIKO HIRU PLAZEN IRISGARRITASUNAREN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko abenduaren 12an Gune Publikoetako batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### JUSTIFIKAZIOA

Maiatzetik ikusi dugu Udal Gobernuak hainbat komunikabidetan adierazi duela Amara Berriko Merkatari, Etxeberritarren eta Donostiako Kofradien plazetan goitik beherako aldaketak egin behar zituela, plazen egoera hobetzeko eta erabilgarriagoak izateko. Dirudienez, 800.000 euro gastatu dira plazen konponketan.

Urrian eta azaroan, auzora egin ditugun bisitetan hainbat kexa jaso ditugu bizilagunen aldetik, plazak ez baitira irisgarriak. Nahiz eta hainbat konponketa egin diren irisgarritasuna bermatzeko, konpoketa horiek ez dira nahikoak izan eta, abenduko batzordeetan aurkeztu ditugun argazkietan ikus daitekeen bezala, espaloi jakin batzuetara mugatu dira.

Batzordean, zinegotzi ordezkariak aitortu zuen plazak ez direla irisgarriak eta kexa ugari jaso direla bizilagunen aldetik. Alde batetik, adierazi zuen aurrekontua agortzeko beldurra zutela eta 650.000 gastatu direnez, oraindik ere konpoketa gehiago egiteko aukera dagoela mahai gainean. Bestetik, hirurogei bat esku-hartze aztertzen ari direla azaldu zigun eta Udal Gobernuak hiru plazak 2017rako irisgarriak izatea espero duela.

Gure taldeak nahasmena ikusten du zinegotzi ordezkariaren erantzunean; ezin dugu ulertu irisgarritasun falta aurrekontuarekin nahastea eta ez da ondo adierazi nola egingo diren 2017ko esku-hartzeak (proiektu berri batekin egingo diren, lehengo proiektua zabalduko den, zeintzuk diren 60 esku-hartze horiek eta abar).

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **MOZIO** hau aurkezten du:

1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari, Amara Berriko Merkatari, Etxeberritarren eta Donostiako Kofradien plazak irisgarriak izan daitezen, planteamendu zehatz bat egin dezala eta kexak helarazi dituzten eragile zein norbanakoei proiektuaren berri eman diezaiela.

EH Bildu talde politikoa  
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus) -  
20003 Donostia

2. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari, Amara Berriko Merkatari, Etxeberritarren eta Donostiako Kofradien plazak irisgarriak izan daitezen, beharrezkoak diren konponketak egin ditzala 2017an, 2016an hasitako konponketei amaiera egokia emanez.

Donostian, 2016ko abenduaren 15an

Olaia Duarte López  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**